

SANDIA-GIDARIA

Testua: **ANTONIO RUBIO**

Irudiak: **EMILIO URBERUAGA**

Itzulpena: **XABIER OLASO**

Azal gogorrean egina. 22 x 22 cm. 36 or. 13 €

Sandia-gidaria (euskara)

ISBN 978-84-9172-239-7. Album irudidunak. Egile-lanak.

Chófer de sandías (gaztelania)

ISBN 978-84-1343-090-4. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

Chofer de sandías (galegoa)

ISBN 978-84-1343-089-8. Demademora.

El conductor de sándries (katalana)

ISBN 978-84-18558-21-4. Àlbum il·lustrat. Obres d'autor.

Behin batean izan zen

egun ere izango dena,


zurtin txiki berde bat

Gran Vian loratu zena...

«“Sandia-gidaria” hiri handi zoro eta alienatzaile batean girotua dagoen istorio polita da. Baina giro eskaseko halako lekuetan ere, gertatzen dira gauza harrigarriak, bereziak eta ezohikoak, bai horixe! Esaterako, gure kontakizun honetan, sandia-hazi bat ernetu, handitu, loratu eta kale-argi bati kiribildurik fruituak ematen ditu, parra argitsua bilakaturik.

Testu errimatu hau Antonio Rubiok egina da, eta bere egitura erritmikoak eta osaerakoak tradiziozko literaturan dute jatorria, baina, hori bai, gaur egungo hiri giroko agertokian gure garaira ekarrita. Eraikuntzak eta merkataritza-guneak, zarataz gain-gain eginda joan-etorrian dabilzan ehunka auto hartzen dituzten kaleak, estresak eta teknologia berriek biziki jota han-hemenka dabilzan biztanleak, egun gu guztiontzat ezagun samarra den agertokira eramaten gaituzte. Nola haurtzaroko begirada gardenak eta lotsarik gabekoak, hala neska-mutikoen naturaltasunak eta sormenak ere errutina izugarri horrekikoak egin, eta, tak!, paisaia ilun eta kutsatua koloretsu eta baketsu bilakatzen dute.

Emilio Urberuagaren ilustrazioek -kolore bizi eta anitzeko paleta, trazuen dinamismoa eta ekarpen grafiko burutsuak tarteko direla- istorioan bertan kontatzen deneko halako zerbait gure ingurumarian ere amestera eta irudikatzen gonbidatzen gaituzte; lehen begiratuan gehiengoaren begietara oharkabeen pasatu eta munta gutxikoa denak oraina eta geroa markatuko ditu egunerokotasunean.



■ **Gaia:** ekologia eta ingurumena.

■ **Adin egokia:** 4 urtetik aurrera..

■ **Nabarmentzekoak:** Hiriak, zalaparta, hiriko bizimodua, kutsadura; testu poetikoa; irudimena, jolasa, umorea..

■ **Liburuaren aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/sandia-gidaria-eusk>

Antonio Rubio

(El Puente del Arzobispo, Toledo, 1953)

Berrogei urtez maisu aritu da eta poeta ere bada; irakurtzeko eta idazteko duen grina gehitu behar zaio haur liburutegietan eta irakaskuntzan egindako lanari. Irakurzaletasuna sustatzeko ikastaroetan eta, orobat, irakasleen prestakuntzarako ikastaroetan parte hartzen du. Faktoria K-ren *Trece lunas* poesia-bilduma zuzentzen du. Liburu askoren egilea da eta horietan guztietan nabarmentzekoak dira: [.largian kulunkantari](#), [«Aurelio»](#), [«Colores»](#), [«Números»](#), [«Juego de letras»](#), [«La mierlita»](#), [«El pollito de la avellaneda»](#), [«Almanaque musical»](#), [«Las alas del AVEcedario»](#) eta [«7 Llaves de cuento»](#) (KALANDRAKA).

Emilio Urberuaga

(Madril, 1954)

2011n Irudigintzaren Sari Nazionala jaso zuen bere ibilbide artistikoagatik. 1980ko hamarkadan hasi zen lanean. Harrezkeroztik, haren lana munduko fundazio eta museo nagusietan dago. 'Manolito Gafotas' pertsonaia ospetsuaren sortzailea da, eta argitaletxe askoren haurrentzako liburuetako irudiak ditu eginik. Haien artean, nabarmentzekoa da "Las cuatro estaciones: Vivaldi" (KALANDRAKA). Beste sari batzuk ere jaso ditu: Anaya-ren VII. saria, Serra d'Or kritikaren saria. The White Ravens zerrendan dago.

www. **kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea
soltxate@pamiela.com